

Egitura

Prelatuak —eta, beraren ordezt, haren bikarioek— du Opus Dein jurisdikzioa: prelatutzako berezko Gotzaina da.

Prelatutzako gobernuaren ezaugarrien arteko bat, kolezial erakoa izatea da eta, hortaz, prelatuak eta bere bikarioak, gehien bat laikoez osaturiko kontseiluekin lankidetzan ari izaten dira beren karguetan.

2004 Mar 18

Opus Deiko gobernuan, prelatuak, hurrengo kontseiluen lankidetzan du:

Aholkularitza Nagusia, emakumeena,
eta Kontseilu Orokorra, gizonena.
Biek dute egoitza Erroman.

Prelatutzako batzar orokorrak zortzi
urterik behin egiten ohi dira, Opus
Deik lan egiten duen herrialdeetako
kideen parte hartzearekin. Batzar
horietan prelatutzako apostolutza-
zeregina aztertu eta gerorako
pastoralgintzako bideak proposatzen
zaizkio prelatuari. Prelatuak,
batzarrean, berriztatu egiten ditu
bere kontseiluak.

Prelatu berria izendatu behar
denean, hautatzeko batzar orokorra
egiten da. Prelatua hautatua da —
zuzenbide unibertsal eta
partikularreko arauen arabera—
prelatutzako apaizen artean, zenbait
baldintza bete behar izanik: adina,
Opus Dein antzinasuna, apaizgoan
esperientzia eta beste batzuk.
Hautatzea, Aita Santuak berretsi
behar du, horretara emanaz

prelatuaren ofizioa. Gaur egun, Opus
Deiko prelatua, Javier Etxebarria
monsinorea da.

pdf | document generated
automatically from [https://
dev.opusdei.org/eu-es/article/egitura/](https://dev.opusdei.org/eu-es/article/egitura/)
(2025 Abu 6)